

HONETARA EZKERO

Arantxa Iturbe Maiz

Pertsonaiak

-EMAKUMEA, E, berrogei urteak paseak.

Galdutako gauzen bulegoan egiten du lan. Udaltzaina da. Bulegoan topatu du bere tokia hernia batek kaleko lanetik apartatu ondoren. Obsesioz bizi du gauza bakoitzari bere jabea topatzearena.

Udaltzain baino lehen, etxeakoak kontentu uzteko zuzenbidea ikasten hasi zen (aitak amesten zuen hizketarako zeukan gaitasunarekin abokatu handi izatera iritsiko zela). Asignatura bat geratzen zaio lizentziatzeko, baina inork ez daki. Abokatu izatea ez zen bere ametsa, nolana ere.

Bere ametsaren bila zienta bat ikastaro egiten ditu denbora librean. Bakarra ez du bukatzen.

-GIZONA, G, adin beretsukoa.

Emakumearen bikotea. Hogei urte inguru daramatzate elkarrekin.

Posta zerbitzuan egiten du lan. Uda batez, lagun batek ezin zuela-eta ordezkotza bat egin zuen postari. Harrezkero bertan jarraitu du, hasieran behin behineko lanekin eta ondoren azterketa gainditu eta lanpostu finkoa lortuta. Ez du denborarik galtzen gustoko lanpostua duen edo ez aztertzen. Lanpostu bat da. Bizitzeko ematen dio eta denbora uzten dio afizio izan duen argazkigintzarako. Ehundaka argazki ditu paperean. Emazteak oparitutako argazki makina dijitala hartzera behartua sentitu zenetik, ez du berdin bizi. Gehiago gozatzen du gaur egun argazki zaharrei begira, berriak ateratzen baino.

Ez da hitz askoko gizona.

-EMAKUMEAREN AHOTSA, EA40, emakumearen adin beretsukoa.

-GIZONEZKOAREN AHOTSA, EA40, adin beretsukoa

Mikrofono banatik hitz egiten dute. Protagonistek isiltzen dutenaren oihartzun bezala entzungo ditugu.

Protagonistenak baino ahots grabeagoak komeniko lirateke. Sendoagoak. Seguruagoak.

-EMAKUMEAREN GAZTETAKO AHOTSA, EA-GAZTEA, hogeitabosten bat urtekoa.

-GIZONEZKOAREN GAZTETAKO AHOTSA, GA-GAZTEA, adin beretsukoa.

Biek dute mugimendu autonomorako aukera. Ez dira estatikoak. Ez daude geldirik. Oraindik protagonisten ahots sentitzen dira, hor daude, eta gogoratzen dituzte garai batekoak.

Gainera, irrati bana dute: irratieta daude bilduak protagonistek jada ahaztuak dituzten pasadizoak.

Sinopsia→

Komisaldegitik deitu diote emakumeari. Senarra han daukate epaileak lehen deklarazioa hartu zain. Kanposantuan atxilotu dute hilobi bat profanatzeko ahaleginean. Profanazioa eta ordena publikoaren aurkako delituak egotziko dizkiote.

Emaztea bila joango zaio, eta deklaratu ondoren, elkarrekin etxera itzultzen diren unean hasiko da obra.

Emaztea haserre. Jakin nahi du zergatik orain. Juxtu orain. Datorren igandean gurasoen urrezko ezteiak ospatzekoak direnean.

Garrantzitsua da berarentzat. Urte askoz egon da gurasoengandik aldentuta. Ez diote barkatu abokatu lanari heldu beharrea udaltzain izatearekin konformatu izana. Amaren gaisoaldiak gerturatu ditu azken boladan. Sinistuta zegoen ospakizun horretan berreskuratuko zuela galdutako harremana. Senarrari agindua zion ospakizuneko argazkiak egitea.

Baina ez da gurasoena urteotan galdu duen harreman bakarra. Urteak dira ez duela senarrarekin hitz egiten. Ahaztu egin dute hitz egitea zer den, esan beharrekoak bozgoraz esan beharrea, ezkututzen hasi zirenetik. Elkarri min ez egiteagatik hasieran, beharbada. Gerora, ez jakin zergatik. Ohituragatik, beharbada.

Bien barne ahotsak lehertu eta azaleratuko dira gertakizunetik aurrera. Barne-ahotsek gordin hitz egiten dute. Eta bakoitzak du bere bertsioa, bai gertakizunaz eta bai hartuemanaz. Gordin hitz egiteak ez du esan nahi, hala ere, egia esaten dutenik. Gehienez ere, bakoitzak bere egia.

Pertsonaiak pentsatzen dituztenak esango dituzte pertsonaien ahotsek. Eta haien bitartez jakingo dugu zergatik bihurtu den bikote zena elkarri zer esanik ez daukan pertsona pare.

Hauxe dute hizketan hasteko unea. Barne ahotsak baztertu eta aurrez aurre hitz egitekoa.

Espazioa

Mahai bat eskenatokian. Albo banatan bina aulki. Protagonistak han esertzen direnean perfilez ikusiko ditu ikusleak.

Ezker-eskuin, lehen planoan, mikrofono bana.

Partitura

Pertsonaien eta ahots-pertsonaien artean ez galtzeko, kolore desberdinez idatziak datoz.

Irratiz grabatuak entzuten diren ahotsak berdez.

1/ Zer esatea nahi duzu?

E eta G agertu eta mahaian eseriko dira. Alde banatan. Parez pare. Burumakur. Ez diote elkarri begiratzen.

Gk argazki makina utziko du mahai gainean.

Ek, bolsoa.

E- (*burua altxaz*) Zer? Ez duzu ezer esateko asmorik?

G- (*burua altxaz*) Zer esatea nahi duzu?

E- (*zutituz*) Zer esatea nahi dudan?

EA40 mikrofonora. Poltsikotik sakelekoa ateratzeko imintzioa egingo du.

EA40- Ez duzu sinistuko zer gertatu zaidan. (...) Ez, ez... Entzungo zenuen zerbait beharbada... (...) Ba, komisaldegitik deitu didate, neska. Bere bila joateko. Komisaldegira, bai. Han zeukaten. Deklarazioa hartu zain. Deklarazioa, bai! (...) Ez. Larria ez. Ezer larririk ez. Kanposantuan hartu dutela atxilo. Horixe besterik ez. (...) Kanposantuan bai. Hilobi bateko lurra iraultzen. (...) Ez. Ez dakit ze hilobi. (...) Ez, ez dakit norena. Hilarririk gabeko bat omen. Hala esan didate. (...) Belar txarrek jandako hilobi bat, antza. (...) Belar txarrek, bai. (...) Ez. Berak ez du ezer esan oraindik. (...) Lasai nago, e? Azken batean, ez du ezer txarrik egin, ezta? Esan nahi dut...

E- Honezkero hasi da kontua zabaltzen.

G- Ze lotsa... ezta?

E- (*haserre*) Baina zu... zuk... Burua galdu duzu, edo zer arraio? Seko galdu duzu, ezta? Zer pentsatzen ari zinen, ordea? Nori bururatzen zaio kanposantuan...?

2/ Gaur

G kanposantuan, argazki kamera eskuetan, hilobi baten aurrean. Ez du hilarririk. Belar txarrek hartutako lur zati bat da. Abandonatua dirudi. Belaunikatu, eta belar txarrak kentzen hasiko da. Pixkanaka hasieran, mimo handiz. Gero eta mugimendu azkarragoekin, segidan. Geroxeago, belarra ez ezik lurra ere harrotzen hasiko da zoro moduan, eskuak pala modura erabiliz. Kontrola erabat galduta bezala.

Aldi berean GA40 inguratuko da bere mikrofonora.

GA40- 'Profanazioa zer den badakizu? (...) 'Delitu dela bai. Hori badakizu, noski...' (...) Gertakizunak irakurri dizkidate. Eguna, ordua, tokia, zertan ari nintzen... Hor altoa eman diet. 'E! Ez dut sinatuko profanatzeko ari nintzela esaten duen deklaraziorik. Belar txarrak kentzen hasi naiz... eta gero... ba, horixe'. Ea zerbait erantsi nahi al dudan. Arrazoiren bat, edo aitzakiaren bat?. Zertan ari nintzen argitzeko bidea emango lukeena, epai bidean jarri aurretik. Hori ere gehitu dute. Ezetz nik. (...) Eta ez dudala sinatuko profanazioarena. Hilobi bat zabaltzen saiatzea profanazioa dela. Ez duela beste izenik, beraz, hala geratuko dela deklarazioan. 'Lehendabiziko aldia da?' galdetu didate gero. Eta erantsi dute: "sikologoaren txostena lagungarri izango da epaiketan".

E- Gaur? Juxtu gaur?

G- Hori da axola zaizuna?

E- Eta zuri? Zuri zer axola zaizu? Axola zaizu norbait? Zerbait?

Gk argazki makinari helduko dio.

E- Ditxosozko argazkiez aparte, esan nahi dut!

G zutitu egingo da.

G- Afaldu nahi zerbait?

E- Ez.

G- Seguru?

E- Gosea galdu dut.

G- Nahi duzun bezala. Dutzatzera noa.

3/ Aitzakiak

EA-GAZTEA eta GA-GAZTEA azalduko dira. Bakoitza irrati handi banarekin.

EA-GAZTEA- Ondo tematia zara! Bakarrarekin ederki moldatuko ginen!

GA-GAZTEA- Tematia ni! Zu tematu zara traste zaharrok ekartzen.

EA-GAZTEA- Bat. Bakarra nahikoa genuen... Badaezpada. Gogorra izango da gaurkoa.

GA-GAZTEA- Ba, bat ekartzekotan, bestea ere bai.

EA-GAZTEA- Egoskor konpletoa.

EA-GAZTEAk irratia piztuko du, eta dialean momentu zehatz baten bila ibiliko da.

Posta bulegoan girotua.

E- Ez dakit laguntzeko modurik izango ote zenukeen...

G- Zertan?

E- Galdutako gauzen bulegoan egiten dut lan. Gutun hau ekarri digute, eta pentsatu dut beharbada zuek errazago bideratuko duzuela...

GA40- 'Probatu al duzu seilua jarri eta bidaltzea'? galdetzekotan egon nintzen.

G- Nire kontu.

E- Zorretan nago zurekin. Galdutako gauzen bulegoan aurkituko nauzu.

G- Ahaztutako gauzen bulegoa behar luke.

EA40- Grazia egin zidan. Zurea uste duzun pentsamentua ezezagun baten ahotan entzuteak sortzen duen espejismoa.

E- Ez nion nik izena jarri. Azaldu egunen batean...

G- Galtzen banaiz azalduko naiz beharbada.

E- Ez ahaztu, behintzat!

GA40- Ume baten letra zuen gutunazalak. Umezale izango zinela pentsatu nuen. Eta gutunazala aitzakia zenuela nigana hurbiltzeko. Hori ere bai. Begiratzeko zure moduagatik. Gustatu egin zitzaidan.

EA-GAZTEAk *irratia itzaliko du.*

EA-GAZTEA- Azaldu zinen. Ez dut gogoan aitzakia.

GA-GAZTEA- Ez zen aitzakia! Aterkia zen!

EA-GAZTEAk irратиaren dialean berriro unea topatu nahi du.

Jatetxean afaltzen.

EA- Zergatik hasi zinen postari?

GA- Kasualitatez

EA- Gustatzen zaizu?

GA- Erosoa da.

EA- Hori ez da erantzun bat.

EA-GAZTEAek buruarekin ezetz.

EA-GAZTEA- Afaria baino lehenago behar du.

Gauza galduen bulegoan girotua.

G- Aterkiak jasotzen dituzue?

E- Galdutakoak bai

G- Eta ahaztutakoak?

E- Baita ere. Ikusi nahi zenbat dauzkagun?

G- Ikusten dut hemen zaudela. Ez zen gezurra.

GA-GAZTEAek beste irratia piztuko du.

G- Aterki honek aste pareta darama posta bulegoan, eta badaezpada zuengana ekartzea erabaki dut.

E- Aitzakia polita topatu duzu

G- Ez da aitzakia: aterkia da!

E- Biek balio dute: beraz, afari parez zor dizut: galdutako aterkia ekartzeagatik bat, eta aitzakia aurkitzeagatik, bestea.

GA-GAZTEA- Aterkia eramatera joan nintzen.

EA-GAZTEA- Esandakoa. Erremediorik gabeko egoskorra.

GA-GAZTEA- Nahi ez duzuna entzuten duzunean, ni egoskorra!

EA-GAZTEA- (GA-GAZTEAri) Zuk ez zenuke hemen egon behar.

Eta badakizu... (GA-40ri). Eta zuk ere ez... eta badakizu.

GA-GAZTEA eta GA40 erretiratu egingo da.

4/ Despedida gutunak

Ek gutunazal handi bat aterako du boltsotik. Barruko gutunak irakurtzen hasiko da, berekasa.

EA40k gutunak bozgoraz irakurtzeari ekingo dio. EA-GAZTEA, entzuten.

EA40- 'Ezagutu nahiko nituzkeen pertsonen zerrendan lehendabiziko postua zurea da. Betirako. Inork ez dizu sekula kenduko toki hori'.

EA40- 'Portuan esan nizuna ez zen egia. Hamabost urte nituen. Baina nolana ere, ez zen egia. Urteak joan zaizkit aitortzeko adore bila. Ez dut aurkitu gaur arte'.

EA40- 'Bart, aspaldian ia egunero bezala, zurekin egin dut amets. Baina aspaldian lehendabizikoz, ez didazu minik eragin'.

EA40- 'Barkatu, ama. Denagatik. Eta eskerrik asko. Denagatik'.

EA40- Nork idatzi ote ditu hainbeste despedida... gero galtzeko?

EAGAZTEA *hurbilduko zaio.*

EAGAZTEA- Zuri zer axola?

EA40- Nire lana da galdutako gauzak jabeei itzultzea.

EAGAZTEA- Ez. Zure lana da galdutako gauzak jabeak azaldu bitartean zaintzea.

EA40- Utziko al nauzu bakean?

EAGAZTEA- Komeni ez. Utzi karta zahar horiek oraintxe, eta erabili geratzen zaizun zentzu apurra, zure benetako arazoak konpontzeko, eta ez besterenak konpontzeko aitzakian zureak estaltzeko!

EA40- Zergatik tratatzen nauzu hain gaizki?

EAGAZTEA- Hara! Azaldu zaizu barruko biktimatxoa! Denek gaizki tratatzen dutena! Ze pena ematen diozun zure buruari, baietz? Inork ez zaitu ulertzen! Gajoa zu! Ba, sentitzen dut esatea: baina ni zara. Edo zu naiz. Beraz, ez badugu elkar ulertzen arazo kozkor bat daukagu.

EA40- Ixo!

EAGAZTEA- Nahita ere, ezingo nuke. Ahotsa naiz. Zu bezala.

5/ Gezurrak

G itzuliko da. Dutzatu berri. GA-GAZTEA eta G-40 haren babesean.

G- Zer?

E- Zer... zer?

G- A, zerbait esan didazula iruditu zait.

E- Ez. Nik ez.

G- Zeure buruarekin berriro?

E- Horrelako zerbait.

G- Eztabaidan.

E- Norbaitekin eztabaidatu behar...

G- Ez da derrigorrezkoa.

E- Zuretzat ez.

G- Ahal bada ez.

E- Zure buruarekin ere ez?

G- Ahal bada ez.

E- Zertarako, ezta?

EA40- Min egin zidan, badakizu? Min egin zidan ez zenuela eztabaidatu nahi entzuteak.

GA40- Min egin zidan, badakizu? Min egin zidan gurea gurasoei ezkututzen zeniela jakiteak.

EA40- Min egin zidan nire arrazoiak ez entzun nahiak

GA40- Min egin zidan arrazoiak bazenituela jakiteak

EA40- Ez nien minik egin nahi.

GA40- Eta niri?

GA-GAZTEAk irratian bilatuko du momentua.

Etxean girotua

G- Zure amak deitu du.

E- Hona?

G- Bai. Ez omen diozu mobila hartzen.

E- Dantza ikastaroan nengoen

G- Esan diot.

E- Eta?

G- Ni nor naizen galdetu dit.

E- Eta?

G- Ez dut jakin zer erantzun

E- Zer nahi zuen?

G- Ea asteburuan ba ote zoazen bazkaltzera, edo...

E- ...ezingo dugu: asteburuan eneagrama ikastaroa daukagu.

G- Daukazu

E- Biok gaude izena emanda.

G- Nik nahiago argazkiak egitera irten

E- Ondo da.

Mikrofonoetatik

GA40- Ez zenuen adorerik izan gurasoei gurea esateko. Nahiago asteburuoro ikastaroren batean izena eman.

EA40- Ez zen nigatik. Gurasoek abokatu nahi ninduten. Udaltzain sartu nintzen. Huts egin nien. Gurasoek arrakastaz betetako etorkizuna eraiki nahi zidaten. Ametsa zazpuztu nien.

GA40- Arrakastarik gabeko postari batekin maiteminduz...

G irten egingo da momentu batez.

Labadora jarri du martxan, soinuengatik antzemateko moduan.

E-(Gk kanpotik entzuteko moduan) Pentsatu duzu zer jantzi bazkaritarako?

G itzuli

G- Ez.

E- Txaketa berri bat ondo etorriko litzaizuke. Oraindik garaiz gabilta erosteko.

G- Ikusiko dugu.

E- Amak soinekoa eginarazi du. Gorria. Oso ondo ematen dio. Guapa aterako da argazkitan.

G- Hitz egingo dugu horretaz.

E- 50 urte elkarrekin. Poz pozik daude argazkiak zuk atera behar dituzulako.

G- Merke aterako zaizkielako...

E- Zergatik jartzen zara hain... hain...?

Labadora zentrifugatzen, puntu gorenean.

E- Zer esango diegu bazkaritan... gaurkoaz?

Labadorak zentrifugatua bukatu kolpean.

G irten egingo da.

6/ Opariak

E mahai gainean dagoen kamerari begira. Eskuetan hartuko du.

E- Makina zaharrarekin al zabilta berriro? Hau ez da nik oparitutakoa, ezta?. Ez al duzu erabiltzen?

EA40- Dendariak esan zidan merkatuan dagoen modelorik onena dela. Denek hauxe nahi dutela.

E- Nahiago zaharra?

EA40- Ez da izango nik oparitu nizulako, ezta? Nik... borondaterik onenarekin aukeratu nuen zuretzat.

GA40- Dijitala da.

EA40- Bai, jakina. Baina orain dijitala erabiltzen dute denek. Galdezka ibili nintzen.

GA40- Analojikoak beste xarma bat du.

EA40- Zergatik ez zenidan, ez zenion esan?

GA40- Esan nizula, niola uste dut. Ez zuk, zuek entzuteko moduan, beharbada.

EA40- A, hori izango da.

E- Entzun al didazu?

G sartuko da.

G- Zer?

E- Hau ez al da kamera zaharra?

G- Bai. Betikoa.

E- Eta nik oparitutakoa? Ez al da ona?

G- Oso ona.

E- Eta orduan?

G- Dijitala da.

GA40-k 'ikusten?' keinua egingo dio EA40-ri.

E- Ez zaizu gustatzen...

G- Erosoago aritzen naiz nirearekin.

E- Zergatik ez zenidan esan?

G- Esan nizun. Ez zenidan entzungo, beharbada.

E- Beharbada. Ba... ez baduzu erabili behar, nik hartuko dut.

E zutitu eta kamara digitalaren bila joango da.

E- Ondo etorriko zait galdutako gauzak katalogatzeko.

EA-GAZTEAk irratia piztu.

Saunan girotua.

EA-GAZTEA- Beste segundu bat eta bertan ziplo hilko naiz!

G- Zerbait esan duzu?

E- Ez... ze beroa...

G- Sauna hala izaten da. Beroa.

GA-GAZTEA- Ze esajeratua zaren... zeinen esajeratua zaren!

E- Zer egingo duzu ni hiltzen naizenean?

G- Lurperatu eta hileta antolatu. A, eta zure amari abixatu. Urte pare batera...

E- Ze graziosoa...

G- Eta argazkiak atera.

E- Hilda?

G- Hiltzen ari zaren bitartean, eta gero ere bai. Eta baita hiletan ere.

Asko gustatzen zait argazkiak egitea.

E- Noiztik?

G- Ez dakit. Kasualitatez hasi nintzen.

E- Erakutsiko dizkidazu noizbait?

G- Noizbait...

Mikrofonoetan.

GA40- Gogoan duzu saunarako txartela oparitu nizunekoa?

EA40- Nahita ere ezin ahaztu! Niretzako oparia zen: biok joateko txartela.

GA40- Zenbat barre egiten genuen orduan...

EA40- Zuk esaten baduzu...

Orain

G- Zer pentsatzen ari zara?

E- Argazkiak egiten izan zara?

G- Non?

EA-GAZTEA- (*etsita*) Non? Non izango da ba, motel? Non harrapatu zaituzte gaur? Oraindik ez duzu ezer esan!

GA-GAZTEA- Zein da galdera?

E- Argazkiak egitera joan zara kanposantura?

G- Bai.

G irten egingo da berriro.

7/ Ez dago dena hitz bihurtu beharrik

G sartuko da bi te edalontzirekin.

G- Tea egin dizut.

E- Eskerrik asko.

G- Kafea nahiago?

E- Ez. Tea ondo dago.

EA-GAZTEA-k apartatzeko keinua egingo dio GA-GAZTEAri. Albo batera erretiratuko dira biak.

EA-GAZTEA- Biek hitz egin behar dute. Ez guk.

GA-GAZTEA- Ni isilik nago

EA-GAZTEA- Egia. Isilik egoten zara beti?

GA-GAZTEA- Ez beti.

EA-GAZTEA- Zeresanik ez daukazulako?

GA-GAZTEA- Bai eta ez.

EA-GAZTEA- Baina berak hitz egingo du zurekin.

GA-GAZTEA- Ez da hitz askokoa.

EA-GAZTEA- Pentsamentuak, ordea... nola isildu?

GA-GAZTEA- Ez dago dena hitz bihurtu beharrik.

E eta Gk tearen parean jarraitzen dute.

E- Beroa dago...

G- Segituan hoztuko da.

E- Lanerako ordua baino lehen hozten bada, nahikoa... ze, bihar ere lanera joan beharko dugu, ezta?

G- Joan beharko dugu.

E- Zer esango diegu?

G- Nahi duzuna esan zuk.

E- Zer gertatu zaizun jakin nahi dut.

G- Jakintzazu zer pentsatuko duten bestela nitaz, ezta? Edo okerrago: zer pentsatuko ote dute zutaz!

Ek te katilua hartu eta burutik behera isuriko dio tea, oso modu lasaian. Ez batere agresibo.

E- Ez duzu beste erantzunik merezi.

E zutitu eta irten egingo da.

EA-GAZTEA- (GA-GAZTEA-ri) Arrazoi duzu. Ez dago dena hitz bihurtu beharrik.

EA25 Eren atzetik.

GA-GAZTEA eta GA-40 G-ri laguntzera hurbilduko dira. Gk uxatu egingo ditu.

GA-GAZTEA- Ikusi al duzu zer egin duen?

GA-40- Inoiz ez du halakorik egin!

EA-40- Zuk ere ez duzu inoiz hilobi bat profanatu!

8/ Umiliazio txikirik balitz

GA40- Lantokian azaldu zitzaidan behin zure ama. Ez nintzen jabetu nor zen parez pare begiratu zidan arte. 'Zu zara orduan alaba lapurtu didan postaria', esan zidan. Aurrez aurre ezagutu nahi ninduela. Espero zuela: mutil polita, hala esan zidan, mutil polita nintzela. Bere alaba ameslaria itsutseko adinakoa. Hainbeste imajinatzen zuela. 'Ageriko edertasunak iraupen laburra du, ordea', gehitu zuen. 'Halako etorkizun ederra izan zezakeen neska... eta begira! Galdutako gauzen bulegoan galduta. Eta aitak hiriko bulegorik onena erosteko aurreztutako dirua ere alferrik galduta. Abokatu bikaina izango zena... Baina, aizu... bulego triste hortako gauzek ere topatzen omen dute lehentxoago edo geroxeago jabea. Hala esaten du gure alabak. Eta gauza xixtrin batek bere bidea topatzen badu, litekeena da gure alabak ere, gaur ez bada bihar, bere bidea topatzea. Bitartean, etorri zaitezke etxera bazkaltzera. Hilean behin'.

Ez nion erantzun.

G nigarrez.

Ek itzuli da kamera dijitala eskutan. Harrituta begiratuko dio.

E- Zer pentsatzen ari zara?

G- Ezer ez

Mikrofonoetatik.

EA40- Ama hil zitzaionean ere ez zuen negarrik egin. Ez nion barkatu

GA40- Sensibilidaderik gabeko pertsonen sailean zokoratu ninduzun

EA40- Ze pertsona klase da ama hildakoan negarrik egiten ez duena?

GA40- Negarrik egiten ikasi ez duena, adibidez?

EA40- Ez nuen uste halakoa zinenik

GA40- Negar egiteak zertan hobetzen du pertsona? Hobe al da negar malkotan urtzen dena, bidea topatu ezin duten malko despistatuak dituen baina?

EA40- Asko esaten du pertsona bati buruz.

E- Ez. Egitan. Zer pentsatzen ari zara?

9/ Hilean behin

GA40- Zu dutxan. Atea ez duzu erabat itxi. Ez da ohikoa. Ate guztiak ixten dituzu. Nik beste inork ez daki zenbat kostatu zitzaidan sukaldekoa kenduta etxeak asko irabaziko zuela ulertaraztea.

Kanilla zabaldua daukazu, baina zirrikitutik ezin zaitut ikusi. Erantzten ariko zara. Denbora luzeegian uzten duzu iturria zabalik.

Ez dago kontrakoaz komentzitzeko modurik. Esango nizuke, baina ez zaitut aztoratu nahi.

Arrimatu naiz zirrikitura. Begiak itxita zaude. Paretaren kontra. Hankak zabalik. Ur zarrazta ez dator goitik behera. Behetik gora baizik. Hankartera. Zeuk bideratzen duzu erritmo geldo eta akonpasatuan. Eta gustora zaude. Bakarrik. Zure ur plazer-emalearekin.

Ezin dut irudi hura burutik kendu.

'Sexurik ez' esana zenidan aste pare bat lehenago.

'Denboraldi batean', erantsi zenuen.

Ulertu nuen.

Eta hala ere, 'sexurik ez... nirekin? Edo sexurik ez?' galdetu nizun.

'Non dago aldea?', zuk.

Dutxan dago aldea. Eta zure begi itxien atzean.

Beste norbaitekin zabilta?

EA-GAZTEA- Badakizu ezetz. Bolada txar bat izan zen hura.

GA-GAZTEAk *irratia piztuko du.*

G- Lan pixka bat egitea komeniko litzaidake lotara aurretik

E- Nik ere badut nahikoa gauza hauek sailkatzen

G- Gero... nahi baduzu... hileko azken ostirala da.

E- Ez kezkatu... nekatuegi gaude.

G- Baina ostirala da.

E- Badakit. Horregatik gaude nekatuegi.

EA-GAZTEAk *beste irratia piztuko du*

E- Ohera noa. Bazatoz?

G- Oraindik ez

E- Asko geratzen zaizu?

G- Pixka baterako bai

E- Esna itxarongo dizut, nahi baduzu.

G- Deskantsatu zuk.

GA40- Bolada txarretik aurrerakoa programatua izan da. Egin behar zelako egitea. Egin, ez bazeunde bezala. Edo ez. Egin baino egon. Gure sexu jarduna nekrofilatik gertuago dago bizirik dauden bi lagunen arteko desioa gauzatzetik baino.

EA40- Ez esan halakorik. Min egiten dit.

GA40- Askotan pentsatu izan dut gorpu batekin aritzearekin ez duela alde handirik izango. Eta ez gaizki hartu: minaren eksklusibitatea ez da zurea.

EA40- Uste nuen gustora aritzen zinela. Hala iruditu izan zait beti.

GA40- Zu ez, ordea. Ondorioz, ni ere ez. Hilean behin. Zure gurasoen etxeko bazkariak bezala. Kunplitu eta pakea. Hori ez da sexua.

Bizilagunen sesioa entzuten da isiltasunean. Eztabaida bizian ari dira.

G- A ze armonia! Ba al dakizu zer galdetu didaten komisaldegian?

E- Zer?

G- Nekrofilia zer den ba ote dakidan.

E- Eta?

G- (soinu alderako keinua eginez) Horiena ez da nekrofilia.

Bizilagunen eztabaida zertxobait baretu dela ematen du.

E- Badakit zer pentsatzen ari zaren...

G- Zer?

E- Txortaldi on batek konponduko duen ezer ez dagoela munduan.

G- Horrelako zerbait...

E- Izutu egiten nauzu.

G- Lasaitu direla ematen du...

E- Kanposantukoa... ez zenuen... ez zenuen egingo... zuk... ez esan zuk...

G- Zer pentsatzen ari zara?

E- Ez dut pentsatu ere egin nahi! Gorpu baten bila ari zinen?

G- Mesedez!. Ez dut gorpu batekin larrutan egin nahi! Ez zait halakorik inoiz burutik pasatu! Bizirik dagoen norbaitekin aritu nahi nuke. Ez dut oraindik itxaropenik galdu!

E altxa egingo da minduta, alde egingo du.

10/ Egia

GA-GAZTEAk ondorengo grabazioa.

E- Edadeko emakume bat ekarri digute gaur. Gajoa.

G- Emakume bat?

E- Bai. Zeharo galduta.

G- Nola katalogatu duzu? Erabilitako gauzen artean? 'Egoera onean' etiketa jarri diozu?

E- Mesedez. Emakume bat esan dut. Ez gauza bat.

G- Baina galdua, gauza asko baino galduago.

E- Galtzen banaiz bilatuko nauzu?

GA40- Zaila da zure galderei erantzun egokia topatzea, badakizu?

EA40- Zein da erantzun egokia?

GA40- Zuk entzun nahi duzuna? Zein entzun nahi duzu?

EA40- Ahaztu dut galdera. Une honetan bakarra dut buruan.

E sartuko da pauso sendoz.

E- Kontatzea nahi dut. Orain.

G- Zer entzun nahi duzu?

E- Egia.

Gk zutitu eta albo batean ikusten ez den leihoa zabalduko du. Kaleko gaueko soinua bertatik. Tarteka autoreen bat. Euria ari du.

GA40- Zer da egia?

EA40- Ez jarri filosofo orain! Ez ihes egin nire galderari.

GA40- Ez, egitan. Zer da egia?

EA40- Euria ari du. Hori egia da.

GA40- Euria ari duela uste duzu. Hori da egia

EA40- Entzun egiten dut.

GA40- Entzuten duzun guztia al da egia?

EA40- Kanpionsantuan hilobi bat profanatzeko harrapatu zaituzte. Hori egia da

GA40- Kanposantuan hilobi bateko lurra harrotzen harrapatu naute.
Hori da egia.

E- Egia. Ez dut besterik nahi. Lekukorik gabe. Aurreiritzirik gabe.
Epairik gabe. Lerro artekorik gabe. Bigarren zentzurik gabe.
Susmorik gabe. Gaizki ulerturik gabe. Interpretaziorik gabe. Uste
okerrik gabe. Egia. Zergatik. Zertara. Zergatik gaur.

GA-GAZTEA- Ez da halako egiarik.

E- Bestela, ez duzu nire bila joaten lanik izango.

*EA-GAZTEA-k GA-GAZTEA-ri helduko dio eta berarekin eramango du
bazter batera, irratian musika jarri eta gero.*

GA-GAZTEA- Nora zoaz? Ez digute joatekorik agindu.

EA-GAZTEA- Sobran gaude hemen

GA40 eta EA40ri inguratzeko keinua egingo diete.

EA40 mikrofonoan geratuko da. Kartak irakurtzen.

EA40-'Damua zer den ikasten duzun egunean, abixatu! Nagoen
tokian nagoela ere, damutuko naiz lehenago irakasteko gaitasunik
ez izanaz'.

EA40- 'Beti maite izan zaitut. Ez nuen joan nahi esan gabe'.

EA40- 'Gutun honek harrituko zaituela espero dut. Ez galdu
harritzeko ahalmena. Daukazunetatik zoragarriena da'.

GA-GAZTEA- Zertan ari da?

EA-GAZTEA- Despedida gutunez betetako sobre bat azaldu da bulegoan.

GA-GAZTEA- Despedida gutunak?

EA-GAZTEA- Itxura hori dute. Zientu bat despedida gutun.

GA-GAZTEA- Eta denak irakurri behar al ditu?

EA-GAZTEA- Irakurri? Buruz ikasi ditu gehienak.

GA-GAZTEA- Despeditzeko?

11/ Hilda nago

G- Bazenekien sei hilabetez azpiko seme-alabak ezin direla errejistratu?

E- Non errejistratu?

G- Ezin zaie izenik jarri. Ez dira.

E- Ez dakit zertaz ari zaren.

G- Hirurogeita hamahiru eguneko gure semeaz. Hamar aste. Lau zentimetro. Bost gramo.

EA-GAZTEA protesta egiten saiatuko da.

EA-GAZTEA- Baina ze seme? Hirurogeita hamahiru egun! Semea?

GA-GAZTEAk isiltzeko keinua egingo dio.

E- Nondik atera duzu izatekotan semea izango zela?

G- Hala sentitu nuen.

GA-GAZTEA irratira hurbilduko da, eta piztu egingo du.

E- Ez dut edukiko.

E- Ez da momentua.

E- Ez da desio genuen zerbait. Nahi gabe izan da.

G- Zerbaitegatik gertatu da.

E- Bai, jakina. Neurri egokiak ez hartzeagatik. Hori izan ohi da haurdun geratzeko arrazoi nagusietako bat.

G- Esan nizun preserbatiboak banituela.

E- Esatea ez da basta. Ez du horrela funtzionatzen.

G- Erabakita daukazu.

E- Bai.

Orain.

G- Registratzera joan nintzen. Behar nuen. Behar nuen paper batean jarrita ikusi izan zela. Ni nintzela aita. Zu ama. (...) Ez zidaten utzi. Esan zidaten sei hilabeteko haurdunaldia behar zuela, gutxienez, registratzeko.

Kanposantuan agertu nintzen. Ez dakit nondik nora. Ez dakit nola. Ehorzketa batekin egin nuen topo. Kaja txiki bat lurperatzen ari ziren. Haiek bazuten sikiera nor lurperatua. Gurea hil zen egun berean.

E- Zertara dator hau hogeituro urte eta gero?

G- Hamazazpi. Hamazazpi beteko zituen aurten.

EA-GAZTEAk irratia piztuko du.

E- (*telefonoz, erantzungailua saltatzen entzungo dugu*) Odola galtzen ari naiz. Etorri lehenbaitlehen mesedez... Ez naiz ondo sentitzen... Ez dakit zer gertatzen ari den... Beldurtuta nago.

E- (*berrero erantzungailuak salto*) Erietxean nago. Aitak ekarri nau. Ondo nago. Ez kezkatu.

GA-GAZTEAk irratia piztuko du.

E- (*erantzungailuan grabatua*) Zerbait ez doa ondo. Odol hustutzen ari naiz!

E- (*idem*) Non arraio sartu zara? Laguntza behar dut!

E- (*idem*) Aitari deitu diot. Lasai. Bukatu da ameskaiztoa.

Orain

G- Ameskaiztoa deitu zenion. Gure semeari!

E- Ez! Ameskaiztoa zen bizitzen ari nintzena! Odol hustuta hilko nintzela uste nuen! Eta zu ez zinen agertzen!

G- Zer kontatu zenion aitari?

E- Zer kontatuko nion ba? Ezer askorik ez. Laguntza behar nuela!

G- Baina zerbait esan beharko zenion...

E- Ez dakit ba. Ez zela berria emateko momenturik aproposena, baina haurdun nengoela, eta zerbait ez zihoala ondo. Edo horrelako zerbait...

G- Esan zenion abortatzeko asmoaz?

E- Ez, noski.

Zabor kamioia geratu da leiho parean.

E- Umea galdu nuelako...

G-...genuelako...

E- ... joan zara hogeitun urte geroago...

G- Hamazazpi urte...

E-... kanposantura ezezagun baten hilobia profanatzera?

Zabor kamioia gogor lanean.

G- Nik ez dut ezer profanatu.

E- Hitza da gutxienekoa! Profanazioa edo dena delakoagatik epaituko zaituzte.

G- Bai, edo nekrofilia edo dena delakoagatik!

Gk zutitu eta leihoa itxiko du.

G- Eta bost axola. Ni hilda nago.

E- Nik bai somatu zerbait arraroa!

G- Aspaldi nago hilda.

E- Ez horrela jarri. Laguntza eskatuko dugu. Asmatuko dugu zerbait... Abokaturik onena kontratatuko dugu. Zer kalte egin duzu ba? Ez diozu inori kalterik egin!

G- Hildakoek ez dute kalterik egiten.

EA40 mikrofonora.

EA40- Halaxe zaude. Hilda. Edo hala iruditu zait. Arnas-estuka ari zara. Esnatu egin nauzu. Eta bapatean, ui, arnasaldi arraro bat eta isiltasuna. Arnas hartzeari utzi diozu. Pentsatu dut: hil egin da.

Arrimatu naiz pixka bat, ez gehiegi. Ez dirudi arnasik hartzen duzunik.

Eta badakizu? Ez dut ezertxo ere sentitu. Ez tristurarik, ez urduritasunik, ez ezinegonik... Pakean sentitu naiz, zu alboan, hilda. Zeinen erraza den batzutan hiltzea. Horixe pasatu zait burutik.

Aurpegia ukitu dizut. Epel zaude oraindik.

Ez dakit zenbat denbora egin dudan esna, lasai, patxadan. Zu gabeko bizitza irudikatzen aurrena. Eta gero goizean egin beharrekoak zerrendatzen.

Jiratu eta galdetu didazun arte: zer? Lo egin ezinik?

EA-GAZTEA- Neska, neska... Ez dut neure ahotsa zurean ezagutzen. Noiz galdu duzu umorea? Non ahaztu duzu?

E- Ba, hilda egoteko ondo harrotu dituzu bazterrak! Edo kanposantuko lurrak, bai gutxienez!

(...)

G- Ez daukat beste lanik.

12/ Zer pentsatzen ari zara?

EA-GAZTEAk irratia piztu

Jendez inguratutako aretoren batean.

G- Zer pentsatzen ari zara?

E- Ezer ez

G- Gezurra. Zerbait pentsatzen ari zara...

E- Keba!

G- Sekretu bat kontatuko dizut: ezpainak mugitzen dituzu pentsatzen ari zarenean.

E- Ez da egia!

G- Zeure buruarekin hizketan ari bazina bezala

E- Eta zerbait entzuten duzu?

G- Ez. Ez da ezer entzuten. Baina etengabe aritzen zara hizketan.

E- Ze lotsa!

G- Lotsa gehiago eman behar lizuke gezurra esateak!

E- Jendeak antzemateko moduan mugitzen ditut?

G- Nik antzemateko moduan bai.

E- Noiztik?

G- Ezagutzen zaitudanetik

E- Nolaz ez didazu gaur arte ezer esan?!

EA40- Noiz utzi zenion hitz egiteari?

GA40- Zuk entzuteari utzi zenionean?

EA40- Zer esan duzu?

E- Zer esan duzu???

EA-25- Oinarrian esan du: errua zurea da. Hitz egiteari utzi nion
zuk entzuteari utzi zeniolako.

E- Ixo!

G- Isilik nago.

E- Ez dizut zuri esan!. Zu ez isildu. Zer esan duzu?

G- Nik?

E- Bai. Esan duzu: 'ez daukat beste lanik'

G- Ba, horixe.

E- Baina ez dakit zer esan nahi duzun horrekin.

G- Egitan ez dakizu?

GA-GAZTEAk irratia piztuko du.

Musika klasikoko kontzertu baten amaieran girotua.

E- Badakit zer pentsatzen ari zaren.

G- Nola dakizu?

E- Irakurri egiten dizut. Pentsatzen ari zara: zenbatez gustorago
egongo nintzateke nire kamera hartuta porai libre, hemen tuntun
honen ondoan aspertzen baino.

G- Hori uste duzu?

E- Eta pentsatzen ari zara: irteeran bakarren batekin hizketan
geratzen bada, nik etxera segiko dut. Ezin dut eraman ezer ez
esateko geratzen diren ezagunen konbersazioa.

G- Zuk ere ez.

E- Eta pentsatzen ari zara: azkeneko aldia! Ez nau gehiago
komentzitu halako ekitaldi hutsal eta aspergarri batera etortzeko.

Ezta sarrerak aitek beharrea aita santuak oparitzen baldin badizkio ere!

G- Zuk aita duzu aita santu.

E- Hori guztia pentsatzen ari zara. Baietz?

G- Zuk esaten baduzu...

GA40- Pentsatzen ari naiz zergatik galdetzen didazun erantzuna baldin badakizu. Zergatik errepikatzen dizkidazun behin eta berriro galdera berak, zuk nahi duzuna entzun arte. Eta zergatik ez zaren sekula erantzunaren zain geratzen.

E- Ez nago seguru.

G- Nobedadea da hori.

E- Ez dakit nor, baina biotako bat zorutzen ari dela iruditzen zait.

G- Biok igual?

E- Harritzen naiz. Urteak dira guk biok ez dugula ezer egiten elkarrekin!

G zutitu egingo da. Leihoa zabalduko du berriro. Gaua da.

G- Atertu du.

13/ Ez

Mikrofonoan.

EA40- Ez. Ez engainatu. Erauntsiaren atariko barealdia besterik ez da.

E- Zergatik hitz egiten duzu eguraldiaz beste zerbaitetaz hitz egin nahi ez duzunean?

EA-GAZTEA- Zuzenegi igual...

E- Zergatik hitz egiten didazu jatorduez beste zerbaitetaz ez hitz egiteagatik?

EA-GAZTEA- Hirugarren galderarik ez egin, mesedez! Ez dizu erantzungo.

EA-40- Zergatik hitz egiten didazu axola ez zaizkidan gauzez axola zaizkidanez ez hitz egiteagatik?

GA-GAZTEAK *irratian kantu bat jarriko du.*

G- Begira...

E- Zer?

G- Zure kantu kuttuna

E- Hau?

G- Bai. Kantu hau entzuteak xamurtu egiten zintuela esaten zenuen beti

E- Garaitako kontuak!

G- Zure kantua da.

E- Ez da betirako kanturik.

GA-GAZTEAk itzali egingo du.

EA40- 'Ederra izango zen zure oroitzapenik kuttunenek nire oroitzapenik kuttunenekin bat egitea. Ederra izango zen zu eta ni noizbehinka gu izatea.'

EA-GAZTEA- Esaiozu hori. Ederra da. Beste batena izan arren.

E- Noiztik zaude lanik gabe?

G- Bada denbora bat

E- Zenbat?

G- Datak inporta du?

E- Noiztik?

G- Bihar zazpi hilabete eta hamaika egun.

E- Zer gertatu da?

G- Zerbitzuaren berregituratze plana esaten diote.

...

E- Ez zaitut ezagutzen. Ezezagun batekin bizi naiz.

G- Ni betikoa naiz.

E- Ez da betikorik. Eta betirakorik ere ez.

...

E- Zer asmo zenuen?

G- Nola zer asmo?

E- Noiz arte isiltzekoa?

G- Galdetu arte?

E- Eta ze galdera espero zenuen? Zer? Ez dute berregituratze planik egin behar postan? Mesedez!

G- Ez. Hori ez, noski.

E- Orduan?

G- Ez dakit ba: zer moduz lanean? Adibidez... Egun ona izan duzu?

E- Eta ez dizut galdetu, ezta!?

G- Urteak dira ez didazula galdetzen.

E- Ez nekien gaizki zenbiltzatenik ere!

G- Ez zaizu gustatzen nire lanaz hitz egitea!

E- Zer esaten ari zara? Zerbaitetaz hitz egiten badugu, lanaz hitz egiten dugu etxe honetan! Tarteka...

G- Hitz egiten duzu. Azkeneko despedida gutunak buruz dakizkit ia-ia. Eta ulertzen dut: nire lana ez da, ez zen hain...

...

E- Nere kulpa da orduan?

G- Nork esan du kulpa?

...

E- Ez dakit gurasoen ospakizunerako indarrik geratzen ote zaidan...

G- Zoaz lotara.

E- Ez.

G- Kafe pixka bat egingo dut. (...) Jateko zerbait nahi?

Ek errukiz begiratuko dio, etsita.

G irten egingo da.

EA-GAZTEAk irratia piztuko du. Diala zoratu egingo du zerbaiten bila, aurrera eta atzera, urduri. Ez du topatzen berak nahi duena.

GA-GAZTEA- Ez daukazu.

EA-GAZTEAk haserre begiratuko dio.

GA-GAZTEA- Alferrik ari zara. Ez duzu topatuko

EA-GAZTEA- Zuk badakizu bost zeren bila nabilen!

GA-GAZTEA- Momentuaren bila ari zara.

EA-GAZTEA- Ze momentu?

GA-GAZTEA- Susmoa daukazu momentu batetik aurrera hasi zela gertatzen

EA-GAZTEA- Zuk ez?

...

GA-GAZTEA- Ez dago gordea.

EA-GAZTEA- Dena dago gordeta!

GA-GAZTEA- Izan ez denik ez. Ezinezkoa da.

...

EA-GAZTEA- Ez genuen hitz egin?

GA-GAZTEA- Ez.

EA-GAZTEA- Baina nik gogoratzen dut zer esan nizun! Esan nizun azkenean destinoak hartu zuela gure ordez erabakia!

GA-GAZTEA- Ez

EA-GAZTEA- Esan nizun oso gaizki sentitzen nintzela.

GA-GAZTEA- Ez. Ez zenidan ezer esan.

EA-GAZTEA- Eta zuk erantsi zenuen: ez eman buelta gehiago. Total! Horixe bera egitea erabakita zeneukan.

GA-GAZTEA- Sekula ez dizut halakorik esan!

EA-GAZTEA- Grabatua daukat buruan zure galdera: 'Kalkulatuta zeneukan egunean abortatu izan bazenu... orduan ere gaizki egongo zinen? Edo poz pozik?'

GA-GAZTEA- Ez dakizu zer esaten ari zaren.

EA-GAZTEA- Beste hau ere bai: 'Zerk egiten dizu benetan min? Umea galdu izanak, edo zuk nahi zenuen bezala ez gertatu izanak?'

GA-GAZTEA- Mesedez...

EA-GAZTEA- Kontatu nizun nire beldurrez eta kezkez, nire errudun sentimentuaz...

...

GA-GAZTEA- Etxeratu ondoren hiru hilabete egin zenituen mutu.

EA-40- Ez zenuen inoiz ulertu, ezta? Ez zenuen ulertu nire erabakia. Eta gutxiago, erabakia hain irmo hartua nuenean, umea ustekabean galdu ondoren harrapatu ninduen tristura. Zer gehiago ez duzu ulertu?

GA-40- Ez zara ulertzen erraza.

EA-40- Zer gehiago ez duzu ulertu?

GA-GAZTEAk *irratia piztuko du.*

E- Egitan? Egitan etorriko zara nirekin? Ezin dut sinetsi! Zuk badakizu ze poza hartuko duen gure amak!?

G- Ikaragarria...

E- Badakizu zenbat aldiz galdetzen duen ea zergatik ez zaren etortzen bazkaltzera? Igandero! Oraintxe deituko diot zuretzat ere platera jartzeko esateko! Eskerrik askoooo!

14/ Beldurrak

G sartuko da kafearekin.

E- Eskerrik asko.

Biak isilik. Bakoitza bere kafean konzentratuta.

EA-GAZTEAk irratia piztuko du.

Taberna batean girotua

E- Ez zara oso hiztuna

G- Ez

E- Ez duzu beharrik sentitzen?

G- Batzutan bakarrik

E- Niretzat inportantea da hitz egitea

G- Niretzat inportantzia gehiegi ematen zaio hitz egiteari

E- Baina ez dakit... bi pertsonen bizitza konpartitzea erabakitzen badute... jakin behar dute elkarren berri. Ez zaizu iruditzen?

G- Hitz egin gabe ere asko jakin liteke

E- Bai, bai. Baina...

G- Hitz egin zuk

E- Bakarrizketa etengabe?

G- Gustatzen zait zure bakarrizketa etengabea

E- Bai, hemen, jendez inguratuta, baina ez dakit nik biok bakarrik egongo bagina...

G- Zuk hitz egin eta nik entzun.

E- Ez da tratu txarra.

EA40- Tranposoa da.

GA40- Zer?

EA40- Nik hitz egin eta zuk entzun

GA40- Ez zela tratu txarra esan zenuen

EA40- Ez zintudan galdu nahi

GA40- Garrantzia gehiegi ematen diezu hitzei

EA40- Edo zuk gutxiegi. Zenbat aldiz esan didazu 'maite zaitut'?

GA40- Zenbat aldiz frogatu dizut? (...) Eta zuk?

EA40- Nik askotan.

GA40- Esan bai. Eta frogatu?

E- Zergatik jarraitzen duzu nirekin?

G isilik geratuko da.

E- Ez daukazu erantzunik.

Gk kamarari helduko dio.

E- Utzi kamara, mesedez.

Gk apartatu egingo du.

E- Zer da? Bakarrik geratzeko beldurra? Aldaketei beldurra? Frakasoari beldurra? Zeri diozu beldurra?

G- Ezeri ez.

E- Orduan? Zer egiten duzu nirekin? Esan.

...

G- Hontara ezkerro...

15/ Profanazioak

Ek leiho ikusezina zabalduko du. Argitu du egunak. Autoak entzuten dira. Jende hotsa. Hiria esnatzen ari den seinaleak.

E- Bizitzak jarraitzen du hor kanpoan.

G- Besteentzat

E- Bizirik gauden guztiontzat. Ez dut 'hontara ezkerro'rik nahi. Ulertzen?

GA-GAZTEA eta EA-GAZTEA, bakoitzak bere irratia hartu eta irten egingo dira.

G- Ez nago seguro

E- Txaketa berria erostera joango gara gaur bertan. Igandean gurasoen ospakizunera joango gara elkarrekin, eta astelehenean, hemendik kanpora nahi zaitut.

G- Kanposantukoagatik?

E- Ez

GA40- Lotsatu egiten zara nitaz. Beti lotsatu izan zara.

G- Lanik gabe geratu naizelako?

E- Ez

GA40- Nola esango diezu gurasoei langabezian geratu naizela? Ez dudala postaritarako ere balio...

E- Gurasoei ez diegu ezertxo ere kontatuko. Ez diegu euren ospakizuna zapuztuko. Hemendik aurrerakoaz hitz egingo dugu astelehenean. Hontara ezkerro...

G isilik geratuko da.

E- Zer pentsatzen ari zara?

G- Ezer ez.

E- Dutzatzera noa.

G- Prestatuko dizut gosaria.

E- Ez. Nahikoa dut geratzen den kafearekin.

E erretiratu egingo da.

EA40- Profanazio gehiegi gau bakarrerako

GA40- Nik ez dut hilobirik profanatu! Ez al didazu entzuten hitz egiten dudanean? Ez dut ezer profanatu!

EA40- Kanposantuan ez, beharbada. Baina etxean, profanatu zitezkeen guztiak profanatu dituzu. Jabetzen zara zenbat hilotz, zenbat gorpu geratu den mahai gainean?

GA40- Nirea barne.

EA40- Ez. Zu ez zaude hilda.

GA40- Zuretzat bai.

E agertuko da berriro.

E- Segi deskantsatzera... inoiz egin dituzun argazkirik ederrenak nahi ditut igandean.

Gk kamara hartu eta argazkia aterako dio Eri erretiratzen ari den bitartean.

EA-GAZTEA eta GA-GAZTEA sartuko dira, irratirik gabe.

GA-GAZTEA- Saiatu gara

EA-GAZTEA- Ez digu onik egin

GA-GAZTEA- Zuk uste oraindik entzuten gaituztela?

EA-GAZTEA- Tarteka bai. Baina ez dakit ezagutzen ote gaituzten.

Ahotsak ere aldatu zaizkigu.

GA-GAZTEA- Zuri ez zaizu aldatu.

EA-GAZTEA- Aldatu gabe! Ez duzu ikusten nola hitz egiten dudan orain?

GA-GAZTEA- Niretzat beti bezala hitz egiten duzu.

EA-GAZTEA- Ez da beti bezalarik. Ez da betikorik. Ez da betirakorik.

GA-GAZTEA- Ikusten? Betikoa zara.

EA-GAZTEA- Zer egingo dugu irrati zaharrekin?

GA-GAZTEA- Hontara ezkerro...

EA40- 'Aretoa ilundu arte ez duzu negarrik egingo. Edozeinek ikusita ere. Baina behin hasitakoan, itxi begiak, eta heldu eskutik

alboko ezezagunari. Ez eman argibiderik. Ez dago dena esplikatu beharrik'.

Tolosan, 2016.ko maiatza